

# Zalaparta sukaldean



**B**azkaltzeko ordua iritsi zenerako, lanean hasteko prest zeuden sukaldeko tresna guztiak:


- ¡1, 2, 3, gora! -esan zien platerak koilarari, labanari eta sardexkari. Hirurak plateraren gainean jartzen ziren beti, mahairako bidea elkarrekin egiteko.

Prest zeuden edalontzia eta pitxerra ere. Bikote bikaina osatzen zuten, eta ezin hobeto moldatzen ziren. Ardoa zerbitzatzeko unea oso zaila izaten zen, bikain koordinatu behar zirelako mahai delikatua ez zikintzeko. Halere, hantxe zeuden mahai-zapia eta ezpain-zapia, mahaia babesteko prest:

- Inoiz ez diogu orban bati hemendik pasatzen utziko! -esaten zuten.

Eta mahaiak irri egiten zuen, pozarren.

Ikusten duzuen bezala, sukaldeko tresna guztiak dira garrantzitsuak eta beharrezkoak. Elkarren osagarri dira, eta batera aritzen dira lanean. Halere, ez pentsa beti horrela ibili zirenik. Ez duzue sinesten? Entzun, bada, behin batean gertatutakoa:



**E**gun batean, zalaparta handia sortu zen sukaldean. Eztabaidan ari ziren sukaldeko tresnak, garrantzitsuenak mutilak ala neskak ziren jakiteko. Mutilen izenean, beti ziztutzen ibiltzen zen sardexkak hitz egin zuen:

- Neskek ongi egiten duzue lana, baina onartu behar duzue gu zuek baino garrantzitsuagoak garela. Zuek guri laguntzeko zaudete. Gu gabe, ez zenukete ezer egiterik izango.

Koilarak berehala erantzun zion:

- A zer nolako txorakeria! Mundu guztiak daki gu zuek bezain onak edo hobeak garela, eta, zuetako inor faltatuz gero, geurek egingo genukeela haren lana.

Labanak, haserretuta, berehala moztu zuen:

- Zientifikoki frogatuta dago gu zuek baino garrantzitsuagoak garela! Horregatik, aurrerantzean ere, guk emango dizkiegu aginduak mahai-tresnei eta baxerei bazkaltzeko orduan!

Pitxerrak, haserretutakoan hartzen zuen jarreran, eskuak gerrian jarrita, zera esan zion, begietara begira:

- Hara bestea! Nahi duzuenean erakutsiko dizuegu zeinen ondo molda gaitezkeen zuek gabe!

Edalontzia, lotsati samarra izanik ere, ausardiaz bete, eta honela mintzatu zen:

- Badakit zer egin! Garrantzitsuenak gu garela onartzen ez duzuen bitartean, ez gara mahaira joango! Ea zer egiten duzuen gu gabe!  
- Ondo esana! -esan zuten gainerako mutilek.  
- Itzultzeko erregutuko diguzue! -esan zuen platerak.  
- Ez zaitetzte hain ziur egon! -erantzun zion koilarak.

Mutilak, orduan, armairuan sartu ziren, neskak nola moldatuko ziren jakiteko.

Gatzontziak, armairuan, hauxe esan zuen:

- Ikusiko duzue zeinen gaizki moldatuko diren tuntun horiek bazkalorduan! Gainera, gaur okela dago jateko! Ea nola mozten duten haragia!  
- Kar, kar, kar! -barre egin zuten denek.

**N**eskak nahiko kezkatuta zeuden. Ez zuten egoera hori batere atsegin, baina mutilak bezain baliagarriak zirela erakutsi nahi zuten.

Bileratxo bat egin zuten, euren burua antolatzeko eta arazoari irtenbideak bilatzeko:


Beti elkarrekin egoten ziren bi burruntziek esan zuten haiek arduratuko zirela sardexkaren lana egiteaz.

Erretiluak katilu handi bat ekarri zuen, platera ordezkatzeko, eta ezpain-zapi batzuk elkartu egin ziren, haien artean mahai-zapi handi bat eratzeko. Potexka polit bat ere azaldu zen, gatzontziaren lanak egiteko.

- Neskak, edariak nire kontu! -esan zuen kopak, beti bezain harro- Zer uste zenuten, ba? Fina eta dotorea naizelako, jaiegunetarako bakarrik balio dudala?

Une horretantxe, labana azaldu zen, bere mihi zorrotzarekin:

- Nik, basati samarra naizen arren, aiztoa ordezkatuko dut!



**H**urrengo egunean, bazkaltzeko ordua iritsi zenean, ez zen mahaietan inolako arazorik sortu. Mutilak armairu barrutik begira-begira zeuden, neskek zerbait gaizki egiteko zain. Baina denbora luzea eman zuten itxaroten, eta azkenerako amore eman zuten.

Mahai-zapiak, denetan argiena izanik, hauxe esan zuten:

- Mutilak, ez al duzue ikusten barregarri geratu garela? Oker geundela aitortu behar dugu! -eta armairutik atera, eta mahaira joan zen.

Sardexkak, lotsatuta, neskak bazkarian bikain aritu zirela onartu behar izan zuten. Mutilak ez ziren uste bezain ezinbestekoak!

Banan-banan, denak atera ziren armairutik, burruntzalia izan ezik, ez baitzuen "neskekin" elkartu nahi.

Orduan, zera esan zion zopaontziak:

- Zatoz hona, buruhandi! Inork ez du zopa zuk bezain ongi zerbitzatzen! Ez al zara konturatzen gaurko bazkarian ondo ibili garen arren, askoz hobeto moldatzen garela guztiok elkarri lagunduz eta elkarlanean arituz? Inor ez da beste inor baino beharrezkoagoa. Benetan baliagarriak izan gaitzen, elkarren osagarri izan behar dugu!

Horixe gertatu zen egun hartan sukaldean. Oso ikasgai garrantzitsua ikasi zuten guztiek.

Ordutik aurrera, etxe hartan ez dute beste inolako eztabaidarik izan, garrantzitsuena nor den erabakitzeko.

